

Gure negozio-eredua aurrera ateratzeak kostu batzuk izango ditu, hau barik ezingo genukeelako proiektua aurrera eraman. Hemen kostu aldakorrak eta finkoak sartzen dira, eta jarraian esango ditugu zeintzuk izango liratekeen.

Kostu aldakorrak: Enpresa baten ondasunen edo zerbitzuen ekoizpenaren edo salmentaren proportzio zuzenean aldatzen direnak. Kostu horiek handitu edo murriztu egiten dira enpresa-jardueraren maila aldatu ahala.

Adibideak: Material zuzenak, eskulana orduka, bidalketa eta enbalaje kostuak, salmenta komisioak, besteak beste.

Kostu finkoak: Epe laburrean enpresa baten ekoizpen edo salmenta mailaren arabera aldatzen ez diren enpresa-gastuei dagokie. Ekoizpena handitu edo gutxitu arren, kostu finkoek konstante jarraitzen dute.

Adibideak: instalazioen alokairua, soldatapeko langileen soldatak, aseguru-kostuak, aktibo finkoen balio-galera, eta abar.

Proiektu honekin hasterakoan, izango genukeen kosturik handiena kapsularen ekoizpena eta funtzionamendua izango litzateke (kostu-aldagarria).

Baina gure enpresa aurrera joan heinean, hilero mantenduko litzatekeen kostuak honako hauek izango lirateke (kostu finkoak): gizarte langileen eta teknikarien soldata, lokalaren alokairua, ekintzen kostua eta abar. Hasiera batean 8 erabiltzaile aurreikusten ditugu.

Kostuak modu errazago batean ulertzeko taula batean adieraziko ditugu.

	Kostu finkoak	Kostu aldakorrak
HILABETERO	Lokalaren alokairua: 600€	Ura: 30€
	Soldata: 6600€ (6)	Elektrizitatea: 150€ bakoizteko
	kapsularen mantenua (garbiketa, berogailua): 170€ bakoitzak	Hasieran: 400€ Materialak berriztu: 70€

	Ekintzak(materiala barne): 150€	Kapsulak: 2000 €x 5= 10.000€
GUZTIRA	12120€	10.650€